



«Wazemank» telebista saioko aktoreak izan ziren atzo Hernanika sagardo berria dastatzen lehenbizikoak.

## IRRIKA EGIN ZUEN TXOTX HERNANIK

Urtero egiten dute hernaniarrek sagardo denboraldia abiatzeko ekitaldia herriko plazan, eta antolatzaileak kontent dira besta hazten ari delako. Atzo, bertzetan baino indartsuago eta umoretsuago egin zuten txotx, «Wazemank»eko aktoreak izan baitzituzten lagun eta inoiz baino jendetza handiagoa bildu baitzen. Hala ere, bizilagunen berotasunaren adinakoa izan zen falta zirenen hutsunea. Preso eta iheslarien argazkiz eta aldarrikapenez josia zegoen inguru guztia.

Maidier IANTZI

**A**tzo eguerdiko hamabietarako Hernaniko Gudarien Plaza solasez, gosez, egarritz, irriz eta besta egiteko gogoz bete zen, baita aldarrikapenez ere. Bi upelen artean paratutako agertokia, balkoiak, hormak eta inguru guztia «Preso eta iheslariak etxera», «Iñaki de Juana hilzorian», «Presoak borrokan, gu ere bai» eta antzeko mezuz josia zegoen. Bizilagunen beroaren adina sumatzen zen falta zirenen hutsunea, eta argazkiek sentimendu hori islatzen zuten.

Joxe Felipe Auzmendi sagardo denboraldi berria abiatzeko ekitaldiaren aurkezleak «Wazemank»eko aktoreak berandu helduko zirela eta pixka bat itxaron beharko zutela jakinarazi arren, jendeak adi jarraitzen zuen agertokira begira, bereziki gaztetxoek, telebistakoak ikusteko irrikaz. Bitartean, plazaren bertze aldean, Bergarako ikastolakoak kilometroak bestako arropa saltzen ari ziren; amnistiren aldekoak, Iñaki de Juana etxeratzeako mozioa aurkezteko sinadurak biltzen; Aratz eta Ugaitz Mugertza aikolari gazteak, erakustaldia prestatzen, eta Herriko Arraun Elkarteak, laguntza lortzen.

Halako batean, trikiti eta pandero doinuak nahasi ziren

herritarren berriketekin, eta geroago Jose Anjel Aranburu, Iñaki Zelaia eta Maialen Lujanbio igo ziren oholtzara abestera. «Hotzetan zaudete tinko, zuek denak ez zineten ba mezetara etorriko?», «Gure herriko plaza bihurtuz sagardotegi haundina» eta «Espero dugu falta direnak laster itzuliko direla, bitartean sagardoak gure hotzak epeldu ditzala», kantatuta amaitu zituzten bertsoak.

### «WAZEMANK»-I OMENALDIA

Herriko alkate Jose Antonio Recondoren hitzen ondotik, eguneko omenduak goititu ziren agertokira, «Wazemank»eko aktoreak: Mikel Pagadi, Jon Iraola, Ainer Tolosa, Mikel Laskurain, Iñake

Irastortza, Anjel Alkain... Han izan ziren telebista saioko protagonista gehien-gehienak, Marra eta Edurne dantzarien aitzinean. Txistu doinuaren eritmorra agurra dantzat zieten neskek, eta Rufino Sagardotegiko Jaber Ansorenak Zuhaitza eskultura eman zien.

Bertso gehiago eta Anjel Alkainen solasak etorri ziren ondoren. «Txakolina asko gustatu izan zaigu beti, Getariakoa...», hasi zen aktorea, baina segituan moztu zion Laskurainek, belarriera sagardo eguna zela xuxurlatuta. «Beno, edatea asko gustatu izan zaigu beti -jarraitu zuen orduan-. Eskerrik asko Mañuren, atsoen eta gainerako pertsonaien partez, mila esker Autopatxiren parteetatik. Egun

pasa polita egingo dugu». Herriarrik irri-ajarika lehertu ziren eta esker ona erakutsi zuten txalo jota.

«Gora Gipuzkoako sagardo berria!», oihukatu zuen aktore taldeak edaria dastatu baino lehen. «Latigo sagardoari!» erratearekin batera leherketa txikiak hasi ziren eta begi guztiak zerura altxatu ziren. Kolore guztietako argiak eta zintak ari ziren jausten, eta haurrak ilusioz aritu ziren biltzen, traka indartsu batek zeruko bestari bukaera eman zion arte.

Hirurehun sagardo litro eta mila pintxo zituzten banatzeko, eta berehala sortu ziren ilarak. Baina Jon Iraolak, telebistan Joxean Tolosa gorputzen duenak, ez zuen horrelako kezka-

rik, dagoeneko eskuan baitzuen edalontzi beta, eta gurekin solasean aritu zen. «Platoan eta sagardotegian, bietan izaten da umorea; lehenengoan egin beharra izaten da eta bigarrenean edaria da barrea sorrarazten duena. Hamaika pasarte irrigarri izaten da, jendea erdi mozkor egoten delako eta ikusi eta pentsatzen duenarekin egin dezakeelako txistea», adierazi zuen haur batek moztu aitzinetik. Izan ere, gaztetxo ugari joan zen aktoreengana sinadura, argazki, musu, erantzun eta dantza eske.

Koadrilarekin upel artean bazkari eta afariak egiteko ohi-tura du Iraolak. Tolosaldean ibiltzen da Hernanin eta Astigarragan baino gehiago, eta aste tartean joatea nahiago du, lasaigo egoteko. Hotza, zutik jatea, edozeinekin hitz egiteko aukera, beste jatetxe eta tabernak baino irekiagoa izatea... Askok dira Iraolarentzat sagardotegien dohainak.

Idoia erreterierak eta Maidier donostiarrak ere beteak zituzten edalontziak GARArekin egoten zirenean. Lehenengo aldiz joan ziren txotx denboraldia hasteko jaira; upel ingurua ongi ezagutzen dute, ordea. «Giroa gustatzen zaigu janaria eta edaria baino gehiago, euskaldun kutsu hori», aitortu zuten. •